

GIPUZKOAKO PROBINCIAREN

KONDAIRA LASTER BAT

Españiako beste zenbait pasarterekin



Itz neurtuzko moldaera

Bere zuzendaria

RAMON ARTOLA



DONOSTIAN

1874


Agerkaichoa



Askok ezduelarik
onela usteko,
beldurrez egon du naiz
lan oni eusteko;
egon naiz ere asi
ta gero uzteko,
ez uzteko bakarrik
gañera austeko,
ez neronek geiago
berriikusteko.

Mocha naiz ni lan modu
oetan asteko,
itz larrizko kontuak
neurtukin jazteko;
ala, askopalta zait
zerbait ikasteko,
bakarrik det balio
bazarrek nasteko,
ezmoldachu alkarri
itzak erasteko.

Ez nuan usterikan
gai ontan sartzeko,
onenbeste itz neurtu
emen esartzeko;
¿nor naiz ni len ezdiran
modak ekartzeko,
kondaira bat oso
itz neurtuz jartzeko?
uzteko ohea da
lan au, ez artzeko,



Gipuzkoa-ren kondaira



Ugol (1) aundiya
izan da andik,
berregunen bat
urtera;
Noc, zanaren
illoba bat zan,
Armenia-tik
atera.



Au zan lenengo
Espaniara,
Allegatu zan
gizona;
beraren onda-
kidatzallea (2)
Tubal baizuben
izena.

(1) Diluvio.
(2) Fundador.

Lendazibiziko
zein alderditan,
bizi izandu
zan bera;
seguru oso
ezin da jakin,
ezda argira
atera.

Jaun Kondaira.
gille askoren,
uste izate
moduban;
euskal-erriyan
bear zuben ark,
bizitu izan
orduban.

Arengandikan
dala euskera,
uste da gaur guk
deguna;
bere oroitza
utzak bioiza,
arraz gozozten
diguna.

Orduko gauzak
esan dan gizan,
gaitzak baitaude
argitzen;
bear bezela
izkribatubak,
ez diralako
arkitzen.

Kartagoaren edo Erromatarren aldia edo epoka

**Berregun urtez Jesukristo bañan lenagoztandik
bosgarren egun urte aldia edo siglo eren aurreneraño**

Lur Gipuzkoa zan
librea eta.
zorianaren
jabea;
arkitu bazan
ere ondoren,
doainde gozo
gabea.

Onen kaltean
ziran onuntza,
Erroma tarrak
etorri;
beste lekubak
beren mendera,
zituztenean
ekarri.

Lur au naizuten
menperatu ta
bestiarekin
batera;
bañan usteak
etzizaitzkaten,
oso nai eran
atera,

**Españairen
choko onetan,
izan zuten zer
pentsatu;
gañerakoa
nienpetu arren,
au ezin zuten
mentzutu.**

**Kantabri-arrak
Astureakin,
egiten zien
gerra bat;
non arterañoñ
etzuben izan,
gaiztoagorik
bat, anbat.**

**Tropa aundiyak
ziralarikan,
etorri lenen-
gotikan;
etzuten beren
naieran iñoiz,
zapaltzen emen
gorikan.**

**Eta berriyak
etorri bear,
izan du zuten
gerora;
ikusirikan
alperrik galtzen,
zit zaiotela
denbora.**

Oyek saltatu
izandu zuten,
etorririkan
uretan;
Pasai biyetan
Donostian ta,
Getariako
kai-etan.

Marko Agripa
zutela bera,
denak bildurik
batera;
asoausardi
aundiz baitziran,
leia bidera
atera.

Ernio mendin
zeuden bestiak,
prest aien kontra
asteko;
alkar denboraz
billatu zuten,
batak bestia
austeko.

Erromatarrak
igotzen asi,
ziran denboran
mendiyan;
besteaksartu
zitzaiozkaten,
oso bultzada
aundiyan.

Au izandu zan
izugarrizko,
odol isurtze
aundiya;
asko galdurik
Erromatarrak,
etzuten artu
mendiya.

Jipoi gogorra
eraman zuten,
oso gogoran
garriya;
mendi arretan
chit zapalduba
izan zan jende
berriya.

Jaun ta jabea
Zesar bera zan
azkenik, onuntz
etorri;
Euskal erriyan
zer pasatzen zan
ezin zubela
igarri.

Tropa aundiyak
para zituben,
hi aldi edo
partetan;
eta berriro
eraso zuben,
bañan, ¿zertako
ta zertan?

Jaun bera ere
ezin eginta,
berak nai zuben
guzirik;
gerra bukatu
bañan len joanzan,
tropak besteri
utzirik

Kayo Antistio-k
artu zituben,
gerrari, arrek
utziyak;
lanikan asko
izan baitzuben,
ezin gorderik
guziyak.

General eta
soldadurikan,
onenak ziran
galdutzen;
zutik ziranen
indarrak ere,
ikusten ziran
auldutzen.

Azkenikere
etzuten egin,
berak naizuten
guzirik;
balleratze (1) bat
denen artean,
izan zan leiak
utzirik.

(1) Convenio.

**Onela dute
argibidatzen,
kondairarik
zarrenak;
lur ontan jarri
etzirarela,
lege Erroma-
tarrenak.**

(Se continuará).



II

Norteko zenbait jende arrotzen erasoa eta Godoaren aginpe aldia

**Bost garren egun urte aldetik
zazpiregun de amabi urtetarañon.**

**Bost garren egun
urte aldiyan,
eta beraren
lenendik;
zenbait arraza
Españiara,
etorri ziran
nortetik.**

**Suebo, Alano
ta Bandaloak,
guziya aldi batean
izandu ziran
allegatubak,
Españiaren
kaltean.**

Gaitzak, gosea
eta izurra, (1)
ziran dierri (2)
onentzat;
sortu ziranak
beren etortzez,
zori gaiztoan
denentzat.

Urte batzuben
geroagora,
Godoak ziran
etorri;
zeñak giari
edo buru zai,
Ataulfo, zuten
ekarri.

Jaun au izan zan
godoak gandik,
erregetzako
autuba;
lendabiziko
Españiako,
beren koroa
artuba.

Ordukoz ziran
Erromatarrak,
arkitzen sobra
aulduta;
lengo indarta
aunditazunak,
iya guziyak
galduta.



(1) Peste.
(1) Nación.

Godoak ziran
Espaniaren,
leku askoren
jabetu;
Erromatarrek
naiz ez oraindik,
oso guziyaz
gabetu.

Kantabri arrak
nola oekin,
balleratubak
baitziran;
bestearrasa
guzien kontra,
gogor mintzotu
oiziran,

Batik bat ere
euskal-erritan,
asten baziran
sartutzen;
kontu gabetzen
ziranak. jipoi
ederrak artzen
zituzten.

Emen godoen
mendean iñoiz,
garri nai izan
etzuten;
beti gerran da
ez, bai, nastutan,
asko zupritu
oi zuten.

Zazpi erregue
ziraren egun
urte arretan
izandu;
Erromatarren
agindearen, (1)
menpe ziranak
egondu.

Euriko-k zuben
agindetza au,
Españiatik
atera;
bi aginpetan
zan lekuban len,
ark para zuben
batera.

Laguntzik gabe
arkitu ziran,
orduban Euskal-
erriyak:
etzuten beste
arrimorikan,
ezpada beren
mendiyak.

Alaz gusiyaz
aurpetzerikan,
etzuten iñoiz
pentsatu;
denari gogor
egin zien ta,
etziran beinche
mentzutu.

(1) Imperio.

Arabearen aginte aldia

**Zazpireun ta amalau urtetandik
milla ta berregun-tarañon.**

Garai arretan
Korango armak,
Godaletetik
pasata;
Goak itzuli
joan ziran beren,
leku on denak
lajata.

Oen lekuban
Españian zan,
sartu moro en
arraza;
zeren kanpora
botatzen etzan,
izan gerora
erraza.

Guziz mudantza
aundiak ziran,
oen etortzez
ikusi;
lenengo gauza
erligioa,
zuten tratatu
itsusi.

Maoma-rena
zutitu zuten,
kristautandea
kendurik;
lur ontan izan
ezpazan ere,
onetarako
modurik.

Kristauak asko
etorri ziran,
Kanpoetatik
onera;
zeñak bat durik
euskaldunakin,
ziran gerrara
atera.

Pelaio bat zan
Asturiazko,
mendi aunditan
azaldu;
zeñagandikan
baitzan kristauen,
indarra bertan
sabaldu.

Jarri gertata
zan jo latzean, (1)
irten zan garai
penean;
zeñatatikan
bere izena,
jakin zan leku
denean.

(1) Batalla.

Laeitze artan
egin zituen,
asko il eta
eritu;
gañera zuben
Obispo jaun bat,
arrapatuba
gelditu,

Ger aundi artan
etsai, bizia
salbatu izan
zutenak;
mendi aundi bat
amildu zanak,
lertu zituen
geienak.

Milagro batez
artu zan ala
mendiyak bea
jotzea;
eta kristauen
kontra zebiltzan,
ayek azpiyan
lertzea.

Au zala bide
alchatu zuten,
bertan eleiza
berriya;
Kobadonga-ko
amabirjiña,
izandu zana
jarriya,

Kalte aundi au
zuten denboran,
afrikatarrak
ikusi;
izuturikan
ingurutako,
denak joan ziran
igasi.

—

Kantauri-arrak
Pelaioekin,
legun chit izan
oiziran;
leku denetan
moroen kontra,
gainduak beti
baitziran.

RAMÓN ARTOLA.

Aurreratuko-da



III

Arabearen aginte aldia

Zazpireun ta amalau urtetandik
milla ta berregun tarañon.

Estimatuak
izaten ziran,
oek alderdi
denetan;
beti auzardi
aundiz leiatzen,
ziradelako
benetan.

Ala aurrera
ibilli ziran
moroak asko
auldubaz;
lengo erroma-
tarraren gizan,
zuten indarra
galdubaz.

Onetatikan
 Pelaio batzan,
 gero errege
 izandu;
 au zan Godoan
 eratik lenen,
 zana agintzen
 egondu.

Onengandikan
 segitu zuben,
 erregi'en oiñ
 berriyak;
 zeñen gertatzen
 diran Asturi-
 arrak jargoian
 jarriyak.



Karlomagno-ren deseijoa edo derrota

Lenpo garaipen
 ayetatikan,
 geroz eunbat
 urtera;
 euskal-erritik
 berriro ziran,
 irten bedekart (1)
 batera.

(1) Encuentro.

Emperadore
Karlomagno-ri,
Roncesballe-ko
partean;
jipoi gogorbat
eman zioten,
mendi aundier.
tartean.

Jaun au zijoan
Españiatik,
Franzira bere
tropakin;
Panplonan ziran
murallak bota
ta andik zuben
aldegin.

Ronzez ballezen
sartu zanean,
an zan ibilde
larriya;
bere jendean
izandu zuben,
kalte ikara
garriya.

Aurretik bera
zijo alarik,
gertatu baitzan
bizirik;
bañan ondoren
zeramaizkinak
biziro gaizki,
utzirik.

Abekari (1) on
zubena ere,
au zan geyena
gelditu;
askoeraman
basuen ere,
guchik zioten
segitu.

Karlomagnoren
urrena, Roldan,
zana an buru
zariya;
onek ere an
utzi izandu,
baitzuben bere
biziya.

Orduko gerra
kantuakdaude,
kondairetan
euskeraz;
bai eta ere
arkitzen dira,
biurtzaturik,
erderaz.

(1) Caballería.

Milla ta berreun urtetandik milla ta irureunda berrogeita amarrerañon.

Milla ta berreun
garren urtia,
aldi siñala
garriya;
gipuzkoak egin
izan zubena,
segi bide bat
berriya.

Urte berean
alkarganatu,
ziran Kastilla
ta biyak;
zeñak geroztik
segitzen duten,
lege bat bidez
anayak.

Lenago zeguen
Nafarroakin,
Gipuzkoa orla
bat duba;
zeñak asarrez
urte berean,
urratu zuten
tratuba.

Gipuzkoa etzan
oso naikidan,
Nafarroako
erregez;
non bait chit zuzen
etzubelako,
kunplitzen bear
zan legez.

Garai arretan
zeguen Alfonso,
zortzi garrena
errege;
bañan au baitzan
Kastillakoa,
emen etzuten
batere.

Jaun onek mende
jarri nai izan,
zuben Gipuzkoa
osoak;
ikusirikan
onetaz bildu
zitzala frutu
gozoak.

Banaindea (1) zan
zeuden fueroak;
aurrera ere
usteko;
Kastilletako
lege igualik,
ez emen jartzen
asteko.

(1) Condición.

Bera ordaintzan,
beartzen bazan,
berari ere
Gipuzkoak
laguntzekoa,
emanaz indar,
legorrezko ta
udekoak.

Ogeita zortzi
Urriya-rena,
eta esan dan
urtean;
egin izandn
zan agerkaia (1)
lege fueroen
gañean.

Zañean ziran
ontzakidatu,
begirunde on
denakin;
borchatu gabe
gordakaitzeko,
berak, oitura
onakin.

Gañera garbi
siñalaturik,
nungo probinzi
onenak;
Biskai, Alaba,
Nafarroa ta,
Francia-rekin
daudenak.

(1) Escritura.

Irakazta au
firmatu zuten,
Artzobispo ta
Obispoak;
eta oekin
Leste goimailan,
zeuden buruzai
bertakoak.

—
Emen, Domingo
Luzuriaga zan,
diputaduba
orduban;
jaun onek amar
adimaitzekin (1)
juramentatu
baitzuban.

RAMÓN ARTOLA.

Aurreratuko-da



(1) Comisionados.

IV

**Milla ta berreun urtetandik
milla ta irureunda berrogeita amarrerañon.**

**Zeñak firmatu
zuten Gipuzkoa
legez juateko
lenez;
Kastillak gaur
arrimatuba,
erregearen
mendean.**

**Artaz Aurrera
giza berean,
segitu izan
baitute;
eta aurrera
ere asmorik,
alkar usteko
ez dute.**

Geroagora
joan zan errege,
Franziyan zuben
gerrara;
eta laguntzan
Gipuzkoa-tarrak,
pasatuziran
bertara.

Beren gai denaz
lagunda zien,
euskaldun aiek
berari;
oso bukatu
zan arte gerra,
etziran andik
etorri.

Ceroagoran
Alkaraz-en da,
Ubedan «ziran
izandu;
ayetan ere
asko zioten,
erregeari
lagundu.

Andaluziko
gerrara gero,
joan izan ziran
emendik;
zuten onzide
aundiarekin,
ichogon gabe,
lenendik.

Amairu onzi
bertakorekin,
euskaldun jendez
beterik;
Sebilla-rañon
pasatu ziran,
Bonifar buru
arturik.

Moroari an
autsi zioten,
beren onzide
zutena;
ibai Trianan
seguen zubiya,
ere izan zan
etena.

Zubi onekin
baliatutzen,
ziran lagun
amparoz;
ala moroak
arkitu ziran,
preso, bota zan
ezkeroz.

Luzaro gogor
arkitu izan,
bazan da ere
Sebilla;
ordutik ango
moro jendien
indarra izan
zan illa.

Erriberaren
aurpetutzea, (1)
gertatu baitzan
segiran;
ala Gipuzkoa
tar an ziranak,
lenaz goititu
baitziran,

Ondorengoan,
milla irureun
eta ogeita
batean;
nafarrak eta
Franzezak ziran
etorri beren
kaltean.

Beraztegi ta
Gaztelu, biyak,
Kiskalirikan
aurrena;
gero Tolosa
nai zuten erre,
bi erri oien
urrena.

Bañan Gipuzkoa
tarrak segiran,
beren bidera
irtenik;
etzien utzi
izan egiten
berak gogoa
zutenik.

(1) Rendición.

Gil Lopez oñez
zutela buru,
beotibarko
gañean;
ichogon zien,
gero lertzeko,
mendi beraren
oñean.

Bildurrik sarri
ingurutako
kupel, barrika
ziranak;
au prist paratu
zituzten, gero
amildutzeko
dianak.

Karez ta arriz
bete zituzten,
etzayen kontra
asteko;
inendi tartean
iristen ziran,
denboran denak
austeko.

Ala irichi
ziran denboran,
tropa aurretik
ziranak;
amildurikan
kupel, barrikak,
galdu baitziran
gyenak.

Aien estura
ikusitzeaz,
ziranak ondo-
rendikan;
guziyak ichu
mustuban ziran,
itzul abitu
andikan.

Bañan orduban
bertan, sarturik,
Gipuzkoa-tarrak
gañera;
il da eritu
asko egiñik,
kendu zioten
bandera.

Berekin-zuten
konboia ere,
an utzirik joan
baitziran;
balio ura
gordekaitzeko,
diña izandu
etziran.

Errege baten
semeak ere,
biziya utzi
zuben an;
arekin beste
zenbait aundizki,
ere gelditu
zan bertan.

Goroztik beti
bordoi dantza bat,
batalla arren
oroitzan;
bertako patroï
San Juan egunez,
jolazten dute
Tolosan.

Andikan laster
Nafarroara,
Tolosarrak joan
baitziran;
an ere beren
egite-etan,
guchi azaldu
etziran.

Gertakaitzen zan
asarrebatan
bidez, baitzuten
eraso;
zeñetan artu
izan zituzten,
arri Leitza ta
Areso.

Milla irureun
eta ogeita,
amaboztgarren
urtean;
gerra berri bat
irazeki zan,
errege biren
artean.

Nafarroa ta
Kastilla ziran,
beren artean
okertu;
onetan ere
erregeari,
asko zioten
lagundu.

Geroz, Salado-n
ere agerkai,
onak chit eman
zituzten;
beren jo aundiz
etzaiak beti,
menperatzen bei
zituzten.

RAMÓN ARTOLA.

Aurreratuko-da



V

**Milla ta berreun urtetandik
milla ta irureunda berrogeita amarrerañon.**

**Ala, lanzata
beste armetan,
azalkaipara
zitzaten;
ezkudo ero
ezkutariak,
erregék eman
zizkaten.**

**Ondoregoan
Aljeziraz-ko,
bollerzan ziran
izandu;
zeñen au ere
gipuzkoatarrak,
ez baitziran lo
egendu.**

Juan Beltran Beles
buru zutela,
egondu ziran
an bertan;
iya bi urte
pasa zituzten,
joan era artan
armetan.

Ondo ageri
baita Gipuzkoak,
bear denbora
zanetan;
leial segitzen
zubela bere,
ama kontuko,
lanetan.



Milla ta irureun da larogeita amarretik,
milla ta lareun da irurogeita amalauraño.

Aldi onetan
euskal-erriak,
zeukan onzi sall
aundiya;
nor nairen kontra
jarri ziteken,
indar mireztu
garriya.

Beartubazan
da ere gero,
bere onekin
uretan;
ingelesaren
kontra bi aldiz,
ill, eteneko
leietan.

Lenaz tan dikan
beren gauzetan,
ziranak oker
uzitu;
denboraz zuten
alkarren kontra,
jartze bidea
arkitu.

Itsas erdiyan
eraso zien,
gogor da biyak
betean;
zeintzuk etziran
gelditu izan,
alkar urratu
artean.

Leiatze artan
garaildaudea,
denboraz baitzan
azaldu;
euskaldunentzat
irten zan ongi,
ingelesa zan
chit galdu.

Leiatze artan
galdu baitzien,
zuten jenderik
onena;
euskaldunentzat
gelditzen zala,
onzi deikan
geiena.

Atzekabe au
ingelesentzat,
izan zan pena
garriya;
emengoentzat
gerta pendu zan,
bezela glori
aundiya.

Andik gero
ayek plantatu,
zuten onzi de
berriya;
euskaldunari
egin ziona,
kalte ikara
garriya.

Oenak ogei
eta bost onzi,
an galdu izan
baitziran;
zan onzi detik
eskapatuak,
bost baizik izan
etziran.

Bañan aitortzen
dute ingelez,
kondairatzen
dutenak;
balienteak
izan zirala,
an aldi artu
zutenak.

Donostiako
gorde lekutan,
ere baziran
paperak;
gaur ezpadira
ere arkitzen,
erre baitziran
da berak.



Milla ta lareun da irurogeita amalau urtetatik,
milla ta bost eunda amasei rañon.

Aldi onetan
España zan,
chit arkitutzen
pobrezan;
diru ondorik
etzeukan eta,
menandea re
galdu zan.

Gura gogorrak
aurretik izan,
zitubelako
ugari;
arkitutzen zan
esan dan gizan,
oso lur joa
chit eri.

Errege berri
katolikoak,
orduban ziran
koroitu;
oek baitzuten
España, lurra
joa zegoana
goititu.

Nonbait zerubak
siñalatuba,
zeukan egun bat
artean;
zeñen naigabe
guziyak iya,
bukatu ziran
batean.

Isabel baitzan
erregiña ta,
bere senarra
Fernando,
oen denboran
zan España,
orondur izan
chit ondo.

Menperatutze
granada-ren
zan oen gandik
izana;
egite ontaz
ez baitzan guchi,
goititu beren
izena.

Onen ondoren
gertatu baitzan,
mundo berriya
billatzea;
Kristobal Kolon
Españiatik
Amerikara
jiratzea.

Erregiñaren
laguntzak zuben,
gizon au aruntz
eraman;
zeñen etzion
Españiari,
alchatze guchi
ark eman.

Aldi berean
Naparroako,
erregetza zan
bukatu;
onen koroiaz
Kastillatako,
erregiña zan
jabetu.

**Afrikarañon
zan eramana,
izan español
bandera;
zeñetatikan
ez beitziran da,
onrra eskazak
atera.**

**Andikan laster
baitzan Gipuzkoa,
kaltar kaitua
gertatu;
bere lurrean
zitzaizkan franzez,
tropa aundiyak
chit, sartu.**

RAMÓN ARTOLA.

Aurreratuko da



VI

Milla ta lareun da irurogeita amalau urtetatik,
milla ta bost eunda amasei rañon.



Ondarrabiya
sitintuba
izan zan, berak
gandikan;
prochu onikan
ez baitzuten da,
ere atera
andikan.



Donostiako
inguruz ere,
lazter baitziran
jabetu;
bañan etzuten
zaiatzte aundik
egiñak gatik
au artu.



**Zurriolako
murruba nola,
baitzan mienta
aulena;
su tunparekin
danbakabera,
bota baitzuten
aurrena.**

—

**Zulaskerabat
gertaturik an,
saiatu ziran
sartutzen;
bañan barrendik
gogor egiñik,
plazik etzuten
artutzen.**

—

**Bi egunean
segitu zuten,
alabastarrak
autsitzen;
plazik artuko
etzutenikan,
etzutelako
etzitzen.**

—

**Aizkenik ere
jendea franko
galduta, beren
temari
utzi zioten,
erasotzeko
beste petralen
lanari.**

Charkeriz beren
igez bidean,
sutu baitzuten
Oiartzun;
eta segiran
Errenteriya,
nola Ernani
ta Irun.

Irumilla ta
bost egun gizon,
armaturikan
Gipuzkoan;
atsemannaian
beren ondoren,
Naparro rañon
ziran joan.

Erpozturikan
Elisondotik,
oso aldean,
betaten;
sutansegiran
asirik jipoi,
aundi bat eman
zioten.

Leiatze artan
francesakasko,
ziran il eta
eritu;
eta amabi
kañoi oenak,
emengo entzat
gelditu.

Jipoi arretaz
izuturikan,
Naparroatik,
segiran
etorri bañan
umilkiago,
beren lurrera
joan ziran,

Gipuzkoa tarrak
entregaturik,
kañoi atsitu
guziyak;
erregiñaren
gandikan jaso,
izan zituzten
graziyak.

Zeñen onratzat
agindu zuben,
ichuragarri
artzeko;
gipuzkoa tarrak
ezkutarian,
beren armatzat
jartzeko.

Ala izandu
ziran jarriyak,
bertan diranak
arkitzen;
egite aundi
gertatu zana,
baitigutena
argitzen.

**Milla ta bosteunda amasei urte tatik,
milla ta bosteunda larogeita emezorzirañon.**

**Gipuzkoan ziran
gizon aundiyak,
aldi onetan
azal;
berak gantikan
lur onek onra,
guchi geroztik
ez aldu.**

**Bat on Sebastian
Elkano baitzan,
maitatutzen zan
gizona;
mundu denari
buelta lenengo,
eman izandu
zoina.**

Getariako
seme onaren,
izena dago
altuban;
onen berririk
esdubenik bat,
iya ezalda
munduban.

Ignazio bat
Loiolakoa.
Pan plonan zana
eritu;
au izanduzan
santu egiña,
zuenasko
meritu.

Juan de Urbietta
Ernanikoa,
batalla gogor
batean;
errege preso
egin zuena,
Italiako
partean.

Eta on Migel
Lopez Legazpi,
Zumarragako
semea;
Filipinaren
kenkidaria,
edo konkista
tzallea.

Oek gaindubak
utzirik joango
gera aurrera
segitzen;
ontaz gerozko
gauzak nondikan.
ta nola diran
argitzen.

Ondarrabiya
millata bosteun,
eta ogeita
batean;
Franzesakartu
izandu zuten,
españolaren
kaltean.

¿Bañan nola zan
Ondarrabiya
artu izandu
orduban?
artu izan zan
etzegolako,
indarrik diña
barruban.

Su tunpadiz chit
eskaz baitzeuden,
tirakaiz ere
chit urri;
zer jana berriz
palta zitzaien,
arkitzen ziran
biurri.

Oez gañera
murrubak ere
arkitzen ziran
autsiyak;
iruri zuben
zirala beren,
kontra ekeiz char
guziyak,

Au jakiteaz
francesak, plazan
sartzen zaiatu
baitziran;
bañan iru joan
aldi egiñik
ere jabetu
etziran.

Erakutzitzen
zuten naiera,
aundiya aruntz
sartzeko;
bañan esandan
gizan etzuten,
izan modurik
artzeko.

Aurreratuko-da

RAMÓN ARTOLA.



VII

**Milla ta bosteunda amasei urte tatik,
milla ta bosteunda larogeita emezorzirañon.**

Ontan zirala
Diego de Berak,
jaun, zegoanak an
orduban;
baldindetze bat
egin baitzuari,
berak nai zuan
moduan.

Plaza errendi
araso zuen,
franzesen mende
jar zedin;
nonbait gerora
okerragoko,
konturik gerta
etzedin.

Bañan au ontzat
artu etzuten,
terzio plazan
ziranak;
ez ere ango
Ayuntamiento,
ta beste gende
dianak.

Terzio esan
diranak ziran,
irten plazatik
armakin;
errendtzeko
tratua ala,
egina zala,
ran jakin.

Ayuntanientu
osoa eta,
jauncho ziranak
erriyan;
franzezak preso
eramanikan,
bizitu ziran
Franziyan.

A la francesen
mende egon zan,
ondoren gero
erriya;
milla ta bosteun
eta ogeita,
lau urte Onda-
rrabiya.

Nola aundiyak
diran gertakai,
izanak erri
onetan;
luzecho ezin
geldi gintezke,
berepasarte
denetan.

Onen kontuak
ondoregoan,
baitaudelako
jarriyak;
berak lajarik
aurrera joango,
gera kontatzen
berriyak.

Italiara
aldi onetan,
tropak joa. ziran
gerrara;
zeñen Gipuzkoak
ere gendea
bialdu zuan
bertara.

Italiako
tropakin ziran,
Españikoak
batean;
Gipuzkoatarak
ere berakin,
guziak ziran
partean.

Franzesazuten
kontrarioa,
leiatzea zan
onekin;
zeñari eman
zien jipoiak
ez baitzion chit
onegin.

Errege an zan
preso gelditu,
Juan de Urbietta
gandikan;
zeña Madrida
geroagoan,
zuten eraman
andikan.

An preso zenbait
denboran egon,
eta Franzira
jira zan;
onetarako
preso bi seine,
utzirik bere
fianzan.

Oek bost urte
geroagora,
arte libratu
etziran;
orduan ere
dirua franko,
pagatu eta
joan ziran.

Garai onetan
Espania zan,
gerra askotan
gertatzen;
zeñen denetan
Gipuzkoa tarrak,
baitzuten parte
artutzen.

Nola Granadan
moroen kontra,
geroago San
Migel-en;
Italiyan ta
Franziyan ere
bai, eta ala
Flandezen.

Felipe baitzan
bigarrenkoa,
errege aldi
arretan;
zeñak paratu
zuan bandera,
iya alderdi
denetan

Flandez, Afrika
ta Amerikan,
Italian ta
Asian;
Españiari
ongite ona,
erauzten zien
guziyan.

**Milla ta bosteunda larogeita emezortzi urte tatik,
milla ta zostzireunda zortzitarañon.**

Alchatze iru
errege lenak,
egin izandu
zutena;
gerozko beste
irurak zuten,
lurrera iya
geiena.

Felipe iru
garrenak zion,
bigarrenari
segitu;
zeñak etzuben
beregianatu,
lengoak ainbat
meritu.

Garai onetan
abiatu zan,
lengo trafika
auldutzen;
aunditazunda
irabaziyak,
eskazten edo
galdutzen

itsasoz etzan
lengo indarrik,
ez eta ere
legorrez;
galtzen ikusten
ziran lekubak
gaitz irabari
ta errez.

Milla ta seireun
eta ogeita.
emezortziko
urtean;
francesak sartu
izandu ziran,
Españiako
lurrean.

Prinzipe Kondek
tropa aundi bat,
zuben legorrez
ekarri;
eta itsasoz
zan, artzobizpo
Burdeozkoa
etorri.

Lendabiziko
saiatu ziran,
Ondarrabiya
artutzen;
bañan barrenen
zeuden indarrak,
etzien utzi
sartutzen.

Ingurutako
berregun eche,
erre zituzten
aurrena;
beste berrogei
eta geiago,
baserri berriz
urrena.

—
Oez gañera
lau burni ola,
eta amalau
erota;
Ondarrabiya
zitiatuba,
izan zan ayek
erreta.

RAMÓN ARTOLA.

Aurreratuko da



VIII

**Milla ta bosteunda larogeita emezortzi urtetatik,
milla ta zortzireunda zortzitarañon.**



Agor illaren
lenendik zuten,
chit ichi Onda-
rrabiya;
gero puskatzen
segi zezaten,
lenaz etzana
berriya.

—

Zazpireun gizon
ziran tropatik,
orduban plazan
ziranak;
eta kompañi
bi terzioak,
oek baitziran
dienak

—

Bañan beste bost
eunen bat gizon,
andikan egun
guchira;
donostiatik
joanik laguntzat.
sartu zitzaizten
errira.

—

Andik aurrera
zer pasatzen zan,
gerrari aien
artean;
argitzen ez da
errez, onlako
kondaira laster
batean.

—

Kanpokoak maiz
zien sutunpaz,
barrengoari
ekiten;
bañan bai ere
oek zituzten,
atera erak
egiten.

—

Guchieri uste
zan aldietan,
gabaz irtenik
erritik;
igualpasatzen
zitzaizten franzez,
alieri beren
erditik.

—

Egiñaz zenbait
kalte beretan,
etasartuaz
izuba;
ala franzezak
zeukaten leku,
artan egote
pisua.

Bañan baiere
ari baitziran,
kañoiak murru-
etara
arrimatutzen,
erasotzeko,
gero bertatik
bertara.

Ala eraso
zien bezela.
eta guziak
batean;
gelditu gabe
murrak oso,
autsi zituzten
artean.

Egun batean
leku baterik
bakarrik, tira
ta tira;
zazpireun bala
kañoiko sartu,
izan zituzten
errira.

Nola batzuek
alabesteak,
seta gogorra
baitzuten;
eta nork beren
punturik nola,
nai utsi nai ez
baitzuten.

—

Plazan ziranak
oso esturan,
baitziran beti
arkitzen;
eta ñondik
laguntzallerik,
etzitzayoten
argitzen.

—

Zizkatenean
kañoiz ta minaz,
murruak porro-
katutzen;
Franzesak asten
ziran urratu:
aietatikan
sartutzen.

—

Bañanbarrenen
ziranak ere,
aurkezturikan
gogorki;
pagatzen zuten
sartu naiean
asten ziranak
ederki.

—

Ontan Prinzipe
Konde-k abisu
bat pasa zien,
an ala;
errenditzeko
plaza, bestela
galdu bearrak
zirala.

—

Zeñen eskintzen
zien baldinde
bat oso onra-
garriya;
irtetekoa
beren armakin.
ustera libre
erriya.

—

On Diego Bultron
burutzari ta,
alkate zanak
orduban;
an ager zeien
erriko denak,
bilduaraso
zituan.

—

Adieraso
zien besela,
nola Franzesen
berriya;
izan zan onraz
errendiseilla,
gordetzen zuten
erriya.

—

Bañan aitatzen
basuen inork,
errenditzeko
gauzikan;
armaz pasia
izango zala,
beretakoak
gandikan.

—

Bere aldetik
ark emezorzi
milla errial
zillarrak;
an zeuzkala, nai
basiran egin,
berakin urtu
ta balak.

—

Allegatutzen
baziran neurri
modu artako
larriyan;
ayek tirata
sartu bearko
zutela Onda-
rrabiyan.

—

Ango jendeak
etzuben izan,
lenaz berotu
bearrik;
denak itz sendo
batean zeuden,
ez utzitzeko
jarririk.

—

Ala eranzun
zien Principe,
Konde-ri, berak
segiran;
asizedilla
nai zubenean.
sartzen indarrez
erriyan

—

Etzeukatela
indar paltarik,
tirakaienik
ere ez;
joan zitezela
nai zutenean,
ez gelditzeko
bildurrez.

—

Zarri sentitu
ziran dunbada
aundi bi erri
guziyan;
egiñak mina
zulotan lengo
murru zar erdi
autsiyan.

—

Eta segiran
zan asalto bat,
izandu leku
beretik;
bañan etziran
ongi atera,
Franzesak jolaz
artatik.

—

Andikan laster
egin zituzten,
gogor beste bi
sarrera;
bañanetziran
ayetan ere,
Franzesak ongi
atera.

—

Bañan urrengo
eguna baitzan,
izan oroimen
garriya;
galdu zirana
franzas asko ta,
libratu zana
erriya.

RAMÓN ARTOLA.

Aurreratuko-da



IX

**Milla ta bosteunda larogeita emezortzi urtetatik,
milla ta zortzireunda zortzitarañon.**



On Juan Alonzo
buru zubela,
tropa aundi bat
bertara
allegaturik,
segiran sartu
izan zan Franzes
etara.

—

Eta goaldi
gogor batez au,
mentzuturikan
Franzesa;
botia izan
baitzan, etzana
izan botatzen
erreza.

—

Juanera estu
artan zituzten,
utzi gauzonak
ugari;
eta gizonak
ez guchi urtan,
pasa eziñik
igari.

—

An utzi zuten
eranzukida,
ta alajeri
diana;
eta oekin
kanpamentuba,
Prinzipe Kondeak
zubena.

—

Franzesetatik
izandu ziran,
milla ta bosteun
bat illak;
eta oesaz
gañera beste,
bi milla preso
egiñak.

—

Ontaz bukatu
baitzan ersitu,
gogor Franzesak
jarriya;
onraz apainki
gelditurikan,
Ondarrabiko
erriya.

—

Gertakai aundi
oen oroitzak,
agertu zitzan
erriyak;
erregek zizkan
eman armetan
jartzeko, izen
berriyak.

Oek erderaz
agerkaituko,
ditugu diran
bezela;
truka ez dedin
beren ichurik,
izkribatu ta
beztela.

La Muy Noble,
Muy Leal,
y Muy balerosa
Ciudad de
Fuenterrabía.

Itz onoretzu
oez gañera,
erregek zizkan
agindu;
eun milla dukat
erri autziya
zedin zegiran
ongitu.

Milla seireun
eta larogei
ta zortzi garren
urtean;
desgraziabat
zan Donostian,
pasa askoren
kaltean.

—

Chimistak sua
arrerasirik,
polbora eche
zan bati;
gazteluaren
erdiya kolpez,
zan goitik beera
erori.

—

Eragin zuen
dardaraizak,
Donostiako
erriya;
kristal geyenak
puskaturikan,
mugitu zuben
erdiya.

—

Gero milla ta
zaspireun da
emeretziko
urtean;
tropaFranzesak
plantatu ziran,
Españiako
lurrean.

—

Emen guchi zan
armadunata,
ayek zetosen
ugari;
non etzan errez
lendabizitik,
gogor egiten
berari.

Irunen guziz
errez sarturik,
an zan jendia
gatican;
laster alderdi
guzietara,
zabaldue ziran
andikan.

Probintziako
adimaiz denak,
juntaturikan
Ernanin;
terzio sail bat
armatutzeko
junta baitzuten
an egin.

Presaz asirik
mutillak biltzen,
guziz denbora
guchiyan
zazpi millako
pilla osatu,
zuten probinzi
guziyan.

Ondarrabitik
eskatu zien,
erregeari
laguntza;
ikusirikan
galdubazala,
joaten baziran
aruntza.

—

Mandatu ura
bialdu zuten,
nekezcho edo
tranzian;
badalaguntza
joan zan orduko,
kontrarioak
an ziran.

—

Murallak zeuden
autziyak eta,
Franzesak ziran
ugari;
lanikan asko
izandu zuten,
gogor egiten
aieri.

—

Ikusirikan
etzeikeala,
gorde luzaro
plazikan;
errendituak
izandu ziran
tratu chit on bat
gantikan.

—

Barrengo tropak
beren armakin,
ziran kanpora
atera;
errenditzeko
itzetan ala,
egin zalako
papera.

Donostiako
plazan arkitzen,
zan munizio
chit guchi;
eskatu arren
etzitzaiozkan,
bear orduko
irichi.

Au sutunpatzen
Zurriolatik,
ekiñ baitzuten
Franzesak;
zeñen andikan
zeuden murruak
meak botatzen
errezak.

Ayek puskatu
ziozkatela,
artu zanean
berriya;
irureun gizon
tropakorekin,
entregatu zan
erriya.

Bañan beste bi
batalloirekin
gaztelua zan
aparte;
au errenditu
izandu etzan,
urrengo egun
bat arte.

—

Orla Gipuzkoa
guziari gero,
sabaldu ziran
Franzesak;
zeñen etziran
emendik kentzen,
izan bizi-
errazak.

RAMÓN ARTOLA.

Aurreratuko-da.



X

**Milla ta bosteunda larogeita emezortzi urtetatik,
milla ta zortzireunda zortzitarañon.**

Geroztik ziran
egin pakeak,
eta Franzesak
atera;
bañan gertatu
zan joate ura,
andikan zenbait
urtera.

Milla zazpireun
da larogei ta
amalau garren
urtean;
berriro sartu
ziran Franzesak,
Españiaren
kaltean.

Endaiatikan
Ondarrabia,
sutunpatutzen
asirik;
errendi erain
izandu zuten,
bere murrubak
autzirik

Ingurutako
español tropak,
denak zetozen
barrena;
igasi gizan,
ikusirikan
errenditutze
arrena.

Donostiaren
aldera laster,
ziran Franzesak
etorri;
zeñak berekin
zituzten guziz,
kañoi aundiak
ekarri.

Barrenen berriz
iya ezbaitzan,
kañoirik eta
polborik;
ala, beraren
kontra asteko,
etzuten izan
modurik.

Modu onetan
zan Donostia,
errenditua
gelditu;
zeñak etzuben
nai, zenbait jende
galtzen alperrik
segitu.

—

Gero Franzesen
mende egon zan,
zerbait denboran
erriya;
izan zan arte
bazileako,
pake soñuen
berriya.



**Milla ta zortzireunda da zortzi urtetatik,
milla ta zortzireunda ogeirañon.**

—

España ta
Franzia ziran
balleratuak
arkitzen;
Napoleonon
kaskarkeri bat,
asi zan arte
argitzen.

—

Norteko iru
nazio aundi.
zituanean
mentzutu;
Españiaren
jabetutzeaz,
zuen jaun berak
pentsatu.

—

Chit gizontazun
chatarkiakin,
lan oni eldu
baitzion;
pauso char onek
berari ere,
on asko egin
etzion.

—

Karlos laugarren
Españikoa,
baitzan errege
debilla;
eta Franziko
emperadore,
Napoleon chit
abilla.

—

Onek gezurrez
erregeari,
gauza on asko
agindu
eta aur chiki
bati bezela,
zion buruba
arindu.

—

Franzira zuben
eramanaso,
bere famili
ta guzi;
zeñen Bayonan
beren buruak
zituzten preso
ikusi.

—

Españiara
abiatu zan,
tropa aundi bat
sartutzen;
eta bertako
leku guziak,
bere mendean
artutzen.

—

Gogorrik egin
gabe bete zan,
iya Españi
guziya;
utsi basuten
ere ondoren,
makiña batek
biziya.

—

Orla zijoan
Españolari,
nai zuen dena
egiten;
eta bat etzan
beraren kontra,
iñondik ere
jaikitzen.

—

Para zituben
lege berriyak,
berak nai zuan
moduan;
bazirurien
bera Jaungoiko,
berri bat zala
munduan.

Españiako
koroa zion,
eman anaia
Joseri;
au zan Baionan
zeguen erregek,
zuen jargoian
eseri,

Bañan esana
daguen bezela,
gizonak dula
gogartzen;
eta Jaungoiko
goian daguenak
bakarrik, berriz
naidartzen.

Españiako
legoia noiz bait,
alchaturikan
lotatik;
arraz suturik
eraso zuben,
batetik eta
bestetik.

Bailen-en zuten
lendabiziko
alkar billatu
eroso;
non batak ala
besteak zien,
gogor alkarri
eraso.

—

Franzesak ogei
eta bost milla,
batalla artan
ziranak;
an galdu edo
preso egiñak,
izan baitziran
dianak.

—

Geroz Sagunto
eta Numanzia,
auntzinetako
izenak
berdinkaitzeko
erantzun zuten,
Zaragoza ta
Jeronak.

—

Oek chit asko
supritu zuten,
Franzez troparen
furia;
ala kondairak
dauka gorderik,
beren mirezte
aundia.

—

Milla zortzireun
da amarrian,
uda berriko
garaian;
arzaia deitzen
zitzaion jaun bat,
jaiki zan euskal
errian.

—

Jaun onek letzen
guchi sekien,
ta eskribitzen
baterez;
bañan Franzesak
kaltarraitutzen,
igualik asko
etzan, ez.

RAMÓN ARTOLA

Aurreratuko-da.



XI

**Milla ta zortzireunda da zortzi urtetatik,
milla ta zortzireunda ogeirañon.**

Beste bat giza
onetakoa,
Naparroan zan
azaldu;
ark ere bere
denboran Franzez,
guchi etzuan
zapaldu.

Jaun oni deitzen
zitzaion Mina,
sartzen zuena
izua;
gerrilletan maiz
ibiltzen zana,
egñaz sua
ta sua.

Milla zorzireun
da amabian,
asi baitziran
larritzen;
galtzen zitzaien
jendeaz berak,
ziraia oso
arritzen.

Beti berriak
etortzen ziran,
eta geienak
galdutzen;
ala, indarra
non artuko zan,
ikusten ziran
auldutzen.

—

Emen naiain lan
baitzenkatela,
beste aldetik
Rusiyak;
eraso zien,
non galtzen zizten
iya soldadu
guziyak.

—

Len umilduba
izan zalarik,
anFranzesaren
gandikan;
emen chit ongi
ikusten ezta,
eraso zion
andikan.

—

An bosteun milla
gizon plantatu,
zituelarik
Franzesak;
geienak bertan
gelditu ziran,
illik armakin
ta otzak.

—

Esan dan gizan
gaizki zebiltzen,
an, eta emen
ongi ez;
errege Jose
izuturikan
Madrildik irten
zan igez.

—

Bañan emengo
tropak orduan,
aterarikan
bidera;
eraso zien,
eta chit gaizki
zan berak gandik
atera.

—

Portuesakin
Ingelez eta,
Español tropak
batean;
ziran Franzesen
kontra orduan,
Bitoriako
partean.

—

Zorzin bat milla
Franzez uste da,
zirala il da
eritu;
gañera beste
milla zizkaten,
arrapatuak
gelditu.

—

Oekin egun
da berrogeita,
amaika kañoi
berenak;
gelditu ziran,
nola konboia,
ta kaja diru-
arenak.

Azkenik koche
erregerena,
eta beraren
ezpata;
oek guziyak
bertan utzirik,
joan ziran denak
eskapa.

Au zan milla ta
zorzureun da
amairu garren
urtean;
non andik joan ta
gelditu ziran,
Franziatikan
aldean.

Tropa beraren,
joan eran oruntz,
Donostian zan
arkitzen
lau milla Franzez
soldadurekin
Rei jenerala
agintzen.

Laster arkitu
baitzan ichiya,
Donostiako
erriya;
denbora guchi
barru ikusi,
zuanaegun
gorriya.

—

Urumeako
alderditikan,
kañoi talde bat
aundiyak;
gogor eraso
zuen puskatzen,
muralletako
arriyak.

—

Zerbait puskatu
zuten denboran,
zati muralla
arrena;
balleratubak
asaltoz ziran,
sartutzen asi
barrena.

—

Bañan etziran
ongi atera,
asko zan il da
eritu;
eta ez guchi
Franzesen mende,
preso barrenen
gelditu.

—

Au zan milla ta
zorzureun da,
amairu garren
urtean;
Usta illaren
egun ogeita,
bost garrengoa
zanean.

Erriya artu
etzalarik, zan
sitiatuba
gelditu;
Agostuaren
ogeita lauba,
arte etziran
mugitu.

Orduban ziran
berriro asi,
sutunpatutzen
erriya;
zeñen iriki
zuten murallan,
zulo aundi bat
berriya.

Egun ogeita
amaikan ziran,
asi erriya
artutzen;
muralla autsi
zuten lekutik,
plazan asaltoz
sartutzen.

Urtan pasarik
lendabizi ta,
joanik murallen
oñera;
an ziran lanak
ezin sarturik,
ezin igorik
gañera.

—

Denbora zerbait
igarorikan,
urak goititzen
asiyak
ziran, da gaizki
arkitzen ziran,
aruntz juandako
guziyak.

—

Atzera ezin
jiratu eta,
aurretikan su
aundiya;
galdu bearrak
ziran guziyak,
ez artutzera
erriya.

—

Batzuek bezin
ziran besteak,
lan gogorrean
arkitzen;
garaipenikan
iñoren alde,
etzan artean
nabaitzen.

—

Ala zirala
estura artan,
leku granadak
zeudenak
su artu zuben
eta airatu
Franzez ingurun
ziranak.

Gertakai artaz
baliaturik,
plazan sartunai
zutenak;
illen gañetik
igoaz pasa,
zituzten murru
etenak.

Illak izandu
ziran bosteun bat,
milla ta bosteun
erituk;
Franzesetatik
guchi galdubak,
zazpireun preso
geldituk.

Erriyan zeuden.
guziak pozez,
balleratubak
sartzeko;
besoak oso
zabaldurikan,
beren aietan
artzeko.

Bañan poz aiek
azturik laster,
arkitu ziran
guziyak;
zeñen beraren
gandikan askok,
galdu zituzten
biziyak.

—

Gertakai artan
zer pasatu zan,
Donostiaren
barrenen;
bear bezela
agerkaitzea,
ez ditekena
da emen.

—

Or lapurketa
emen iltzea,
beste eskiñan
borchatzen;
eta denbora
berean zeguen,
erri guzia
erretzen.

—

Non zarrak eta
ala gazteak,
aberratz, pobre,
guziyak;
ibilli ziran
gorde eziñik,
bakoitzak beren
biziyak.

—

¡O! zer tristeza
etzan izango!
¡zer gauza negar
garriya!
ikusitzeaz
personak ala,
eta kiskaltzen
erriya.

Ez da jakindu,
sua zan berez,
edo charkeriz
emana;
berrogei echez
gañerakoa,
errea izan
zan dana.

Rei jenerala
Gazteluban zan.
bi millarekin
sartuba;
zorzi egunez
geroago zan,
izan au erren-
dituba

Donostiako
egun berean,
Irundik oso
aldean;
Franzesak galdu
zuten batalla,
San Marzialko
gañean.

Andikan pasa
izandu ziran,
beren lekura
Franzesak;
zeñak etziran
Españiatik
izan botatzen
errazak.

—

Lur oetatik
bota ta berak,
gerra bukatu
ondoren;
Fernando zazpi-
garrena zuten,
para errege
Madridenten.

—

Urte batzuek
igaro ziran,
alkartazun da
pakean;
berriz contatzen
asiko geran,
gerra pistu zan
artean.



**Milla ta zorzireunda ogei urtetatik,
milla ta zorzireunda ogeita amairurañon.**



Aldi onetan
errebeldi bat,
tropen artean
zan izan;
Kostituzio
lenaz egin bat
berriro para
naia zan.

—

Erregek kendu
izan baitzuben,
Kostituzio
len ori;
Franziatikan
Españiara
zanean bera
etorri.

—

Ortik pistu zan
gerra berri bat,
Españolaren
kaltean;
asarraturik
oso lagunak,
izan ziranak
artean.

—

Batzuek ziran
errealistak,
ta liberalak
besteak:
zeñak alkarren
kontra baiziran,
alcha zar eta
gazteak.

Gipuzkoan ere
armatu ziran,
ezpazan ere
denetan;
Konstituzio
beraren alde,
erri aundicho-
enetan.



XII

**Milla ta zorzireunda ogei urtetatik,
milla ta zorzireunda ogeita amairurañon.**



Bañan Francesa
etorririkan,
tropa zail aundi
batekin;
erregearen
alde zioten
liberalari
su egin.

—

Donostia zan
zitiatua,
egon Franzesak
gandikan;
eta ondoren
errenditua,
gertatu gabe
gaitzikan.

—

Erri onetan,
Tolosan eta,
Bergaran armak
artuak;
geroz Koruñan
izandu ziran,
igez moduan
sartuak.

—

Errealisten
laguntzarekin,
Franzez etorri
ziranak;
izan baitziran
Españiako,
gerra bukatu
zutenak.

—

Urte batzubek
pasatu ziran,
erdi pakeko
moduan;
oso gustora
etziralarik,
zenbait gelditu
orduan.

—

Oni ondoren
segitu zion,
beste gerra bat
berriyak;
zeñak ondatu
zituan oso,
gizonak eta
erriyak.

—

Dez naikida bat
ezagutzen zan,
iya Españi
guziyan;
ezin lerturik
baitzegoen gaitza,
bañan lertzeko
zoriyan.

—

A la egun bat
allegatu zan,
ichura beltzez
janziya;
zeñen ontatik
abiatu zan,
galtzen Españi
guziya.

RAMÓN ARTOLA

Aurreratuko-da



XIII

**Milla ta zorzireun da ogeita amairu urtetatik,
milla ta zorzireun da irurogeiraño-**



Milla zorzireun
eta ogeita,
amairu garren
urtean;
Fernando zazpi-
garrena il zan,
Españiako
kortean.

—

Au il ondoren
alchatu ziran,
alde bosgarren
Karlozen;
au nai zutenak
errege para
Españiari
agintzen.

—

Bañan koroa
alabarentzat,
nola zeukan ark
utziya;
beraren alde
zalatu baitzan,
gobernu len zan
guziya.

—

Lendabiziko
On Santos Ladron,
zan il urriyan
mugitu;
oni zioten
Balde spina ta,
Lardizabalek
segitu.

—

Geroz karlistak
gaizki zebiltzan,
euskal erritan
ziranak;
aldi batean
iruri zala,
gorde zirala
dianak.

—

Bañan gizon bat
bazan, artean
etzana ondo
azaldu;
zeña geroztik
kondairuk guchi,
aitatu izan
ezaldu.

—

Au zan On Tomas
Zumalakarrei,
guziz koronel
aituba;
bere denbora
guziyan beti,
soldaduakin
oituba.

—

Jaun au asi zan
soldadu charrak,
ondutzen eta
argitzen;
zeñen ondoren
allegatu zan,
jende askori
agintzen.

—

Soldadu charrak
ondu ondoren,
bere aiekin
nora nai
abiatu zan,
leku denetan
gogor egiten
nola nai.

—

Ordu arte an
karlistak, nonai
errez ziranak
mentzutzen;
andik aurrera
berak zituzten,
baztarrak oso
nastutzen.

—

Bizkaian ere
gallandu ziran,
il tzamar egon
ziranak;
Latorre-rekin
zazpireunen bat,
izango ziran
dianak.

—

Solar-ko baroi
jaun Ezpinosak,
Gernikan zien
eraso;
bañan etzuben
garaipenezko,
onra aundirik
an jaso.

—

Modu oietan
akabatu zan,
gerra asi zan
urtea;
zeñen berriya
etzan azaldu,
joan zana bañan
obea.

—

Karlistentzako
urte beraren,
lendabiziko
erdiya;
etzan izandu
bentajazkoa,
edo pozgira
garriya.

—

Nola Argudin,
Hueska, Oñate,
Markinan eta
Sodupen;
Karlosen armak
garaipenikan,
jaso izandu
etzuden.

—

Bañan berriro
geroagoko,
urte beraren
partean;
etziran irten
Karlosen armak,
ain gaizki nola
artean.

—

Rodil zebillen
beti Karlosen,
ondoren egun
eta gau;
bere naiera
dena zuela,
arrapatzea
gizon au.

RAMÓN ARTOLA.

Aurreratuko-da



XIV

**Milla ta zorzireun da ogeita amairu urtetatik,
milla ta zorzireun da irurogeiraño.**



Bañan etzuben
nairikan egin,
alperrikan zan
nekatu;
denbora asko
galduta zuben,
bere ustea
trukatu.

—

Milla zorzireun
eta ogeita
amabi garren
urtean;
Gobernu zanak
garaipen gabe,
segitzen zuben
artean.

—

Mina, zan tropa
guzien buru,
aldi arretan
arkitzen;
zeñari gauzak
oso eraro,
etzitzaiozkan
argitzen.

—

Gobernu zanak
esturan zala,
zuben denboran
juzgatu;
nazio bere
ondokoari,
zion laguntza
eskatu.

—

Etorri izan
ziran bezela,
ingelez tropak
ugari;
zeñak etzien
guchi lagundu,
izan ondoren
berari.

—

Karlistarentzat
ona izan zan,
garagar illa
osoa;
zeñetan zien
Villafrankari,
para erzizko
lazoa.

—

Au zan karlisten
eskuetara,
ezin bestean
makurtu;
gero Eibar da
Bergara, biyak,
zituzten igual
menpetu.

—

Estella eta
Tolosa ere,
librean ziran
ikusi;
Bilbora eta
Donostiara,
irtenik tropak
igasi.

Modu berean
Balle Baztan da
Elizondo ta
Durango;
laja zituzten
bertan seguru,
etziralako
egongo.

Erabakirik
Bitoriako,
erriya ere
usteko;
baldin karlistak
usteik artzen,
bazuten aruntz
joateko.

Bañan utzirik
Zumalakarreik,
ez, beian zegoan
lan ori;
zitiatu ta
zutunpatutzen,
zion eraso
Bilbo ri.

Balkoi batetik
zeguela bera
begi aurreaz
begira;
eskuieko
ankerik balaz,
eman zioten
erida.

—

Bere agintez
zuten zegiran,
leku artetik
eraman;
zeñetan nola
zendatuko zan,
il zan chit laster
Zegaman.

—

Onen tokigan
agintzen jarri,
zuten jeneral
Eraso;
zeñak usteren
lendabizitik,
zuben zitio
au jaso.

—

Mendigorrin da
Arrigorriagan,
guziz leiatze
aundiyak;
izan baitziran
urte berean,
azki gogoan
garriyak.

—

Lenengokoan
ziralarikan,
asko il eta
eritu;
Gobernuaren
tropak baitziran,
garaipenean
gelditu.

Bigarrenago ta
Esparteroren,
Bilbora joate
bidean;
jaun onen tropak
etziran irten,
ain ongi nola
lenean.

Bide onetan
zuten jaun bera,
balaz ta lanzaz
eritu;
oso guchian
egon zan nola,
etzuten bertan
gelditu.

Donostiaren
sutunpatzea,
izan zan urte
berean;
Abenduaren
seigarrenean,
edo beraren
gabea.

Milla zorzireun
irurogei ta,
amasei garren
urtean;
gauzak ain gaizki
arkitzen ziran,
nola ordura
artean.

—

Onen ondoren
izandu ziran,
Getariara
sartutzea,
non Merkadillo
ta Balmazeda
ere bi oek
artutzea.

—

Lekeitio ta
Plenzia ere,
izandu ziran
artubak;
bala kañoizkoz
autsi paretak,
eta karlistak
sartubak.

—

Il Mayatza-ren
egun bostean,
Donostiatik
aldean;
izan zan guziz
leialdi latz bat,
karlistarentzat
kaltean.

—

Au erzituba
arkitzen zala,
izanik zenbait
denbora;
egun onetan
atera ziran,
barrengo tropak
kanpora.

—

Ebautz jeneral
Ingelesa zan,
sartu lerroa
austera;
bañan chit jende
asko galduta,
jiratu baitzan
ostera.

RAMÓN ARTOLA.

Aurreratuko-da.



XV

**Milla ta zorzireun da ogeita amairu urtetatik,
milla ta zorzireun da irurogeiraño.**



Asi goizeko
lanetansutan,
eta amarrak
artean;
jaun onen tropak
arkitzen ziran,
iya tokitzu
batean.

—

Bitarte ontan
eulien gizan,
ziran gizonak
erortzen;
aurrera juanak
guchi zirala
atzera bueltan
etortzen.

—

Leku charretik
abiatu zan,
jaun au lerroa
puzkatzen;
jende geiagi
galdu zuela,
askok du geroz
juzgatzen.

—

Estura artan
bafora bat zan,
Donostiara
irichi;
zeñak zituben
tropa berriak
ekarri eta
ez guchi.

—

Oek saltatu
zuten denboran,
lagundutzeko
len'ari;
bafore bera
itsasotikan,
kañonazoka
zan ari.

RAMÓN ARTOLA.

Aurreratuko-da.



XVI

**Milla ta zorzireun da ogeita amairu urtetatik,
milla ta zorzireun da irurogeiraño.**



Bala arrasa
bat sarturikan,
karlistak zeuden
echera;
bero suturik
ziran estura,
aundian andik
atera.

—

Gañera il zan
Zagaztibeltza,
general, onen
zutena;
eta orduban
gertatu baitzan,
beren lerroa
etena.

—

Nazpilla eta
estura artan,
erzitu ura
zan autzi;
eta karlistak
artaz joan bear,
izan baitzuten
igasi.

—

Ebautz-i milla
paren bat gizon,
zitzaizkan il da
eritu;
bañan karlistak
zuten lurrean,
zan jaun au gero.
gelditu:

—

Besteetan zan
izan askozaz,
guchiagoko
galera;
bañan etziran
egun arretan,
berenarekin
atera.

—

General au zan
ibilli gero,
Ondarrabia
artzeko;
bañan etzuan
modurik izan,
plaza onetan
sartzeko.

—

Geroz ametza
gañean ziran,
izan egite
chit latzak;
aldi luzean
artutzen gaitzak
izango diran
jolasak.

—

Karlistak gandik
izan zan Bilbo,
zitiotua
ostera;
bañan denboraz
jaun Esparterok,
zituen andik
atera.

—

Milla zorzireun
eta ogeita,
amazazpian
lenendik;
probinzi ontan
etzan nabaitzen,
gerra soñurik
iñondik.

—

Denborak ziran
osoro charrak,
aldi arretan
izandu;
beragatikan
pake moduba,
baitzan orduban
egondu.

—

Marzo illaren
amarrean zan,
jaun Espartero
mugitu;
Bilbotik irten
Gipuzkoara ta
Elorrion zan
gelditu.

—

Egun berean
Oria-mendin,
eman zan kolpe
berriya;
zeñen karlisten
mende gelditu,
izandu baitzan
mendiya.

—

Gobernuaren
soldadu etan,
zenbait izutzen
asirik;
igasiari
eman zioten,
beren lekuak
utsirik.

—

Karlistak ergai
arretan gogor,
baionetara
sarturik;
bota zituzten
an ingurutik,
jende chit asko
galdurik.

—

Jose Arteaga
zeritzon batek,
Ingelez bati
bandera
zion, lenengo
illikan bera,
eskuetatik
atera.

—

Jaun Esparterok
zuen denboran,
au nola pasa
zan jakin;
len etorri zan
lekura berriz,
irten zan bere
tropakin.

Geroagoan
baforean zan,
pasatu Donos-
tiara;
zeñen zituen
tropa guziak,
bildu berekin
bertara.

Denboraz artu
izan zituen,
Ondarrabia
ta Irun;
bai eta ere
oen inguru
guziak eta
Oiarzun.

Aitatu diran
lekubak errez,
izandu ziran
artubak;
zergatik zeuden
tropa karlistak,
Napar lurrean
sartubak.

Au moldatutzen
asi baitziran,
Madril aldera
artzeko;
beren usteak
izanik Korte
Españikoan
sartzeko.

—

Maiatz illaren
amabostean,
amabi milla
oñesko;
mugitu ziran
lagun arturik,
milla ta seireun
zaldizko.

—

Karlos bera zan
guzien buru,
zenbai General
onekin;
On Sebastian bat
lenen zubela
ondorengotan
berekin.

—

Gogor billatu
izan zituben,
Madril aldeko
bideak;
zeñari ondo
etzitzaiozkan,
atera bere
ideak.

—

Jaun Esparterok
izandu zuben,
Gobernutikan
berriya;
bera tropakin
Madrilla-alik,
lenen zedilla
abiya.

Agostuaren
amairuan zan,
erri artara
irichi;
zeñak etzuben
izandu bertan,
ongi etorri
chit guchi.

Karlos salarik
an inguruban,
irichi egun
batez len;
balorerikan
etzuben izan,
sartzen aste
barrenen.

Ango jendean
nabaiturikan,
naitazen guchi
entero;
penaz beterik
oztu zan oso,
egondu zana
len bero.

Guztiz joaldi
gogor bat zuben,
an emateko
ustea;
bañan naitazun
charra ikustez,
pensatu zuben
ustea.

—

Ala, laster zan
andikan jira,
ezer egin ez
baitzuben;
nai era ura
artu ezpalu,
kalte aundirik
etzuben.

RAMÓN ARTOLA.

(Jarraituko da.)

